



Erizaintza  
Sindikatua  
Euskadi

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**LAB**

**SME**  
EUSKAL MERCANTIL SINDIKATUA

**CCOO**  
osasun federakundea

**UGT**  
Zerbitzu Publikoak

## **OSAKIDETZAK BIZKARRA EMATEN DIO BENETAKO NEGOZIAZIOARI MAHAI SEKTORIALEKO SINDIKATUEKIN**

SATSEk, ELAk, LABek, SMEk, CCOOk eta UGTk gaurko deitutako bilerara ez joatea erabaki dute, Osakidetzak plantillak jasaten dituen arazo larrien konponbidean aurrera egiteko borondaterik ez duela ikusita.

Larunbat honetan EAEko hiru hiriburueta egindako manifestazio jendetsek argi eta garbi islatu zuten langileek eta herritarrek gure osasun publikoaren desegitearen aurka egindako aldarria. Hala ere, Osakidetzak itsu eta gor jarraitzea erabaki du, eta egindako eskaerei jaramonik ez egitea. Hala, Mahai Sektorialeko beste bilera bat deitu du gaurko. Mahai Sektoriala osatzen duten sindikatu guztiak urrian mahaitik altxatzera eraman zitzuten arrazoietatik ez da aldentzen deialdia.

Osakidetzako Zuzendaritzak eta Sailburuak ondo baino hobeto dakite zergatik ez diren joan Mahai Sektorialeko bileretara: benetako negoziaziorik ez dagoelako eta existitzen ez den negoziazioa antzeztu nahi dutelako. Ildo beretik, Mahaian berriz ere sindikatuak egoteko bete behar diren baldintzak ezagutzen dituzte ere.

Hala ere, eta hilabete askotan egin duen bezala, Osakidetzak errealtitateari bizkarra ematen jarraitzen du, eta gaurko beste bilera baterako deialdia egin du. Bilera horren edukia, berriz ere, ez da sindikatuen eskaeren araberakoa.

Sindikatuek, behin eta berriz, bi gai zehatz planteatu dituzte:

- Alde batetik, mahaitik Lanbide Garapeneko eredu berriaren azken zirriborroa kentzea, aldebakarreko murriketa onartezina delakoan. Horrekin batera, negoziazio zintzo, egiazko eta edukidun bat ireki behar da.
- Mahai gainean proposamen bat jartzea, gatazkan dauden langileen aldarrikapenak beteko dituena, %4ko ordainketari dagokionez. Gogora dezagun Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko langileek 14 greba egun baino gehiago egin dituztela aldarrikapen honengatik.

Bilerako gai-zerrendan ez dago bi gai horietako bat ere. Planteamendu ulertezin baten aurrean gaude Osakidetzaren partetik, kontuan hartzen baditugu Sailburuak larunbat honetan bertan egindako adierazpenak. Sagardui adierazi zuen Osakidetzaren arazoa ez dela dirua. Hala ere, ez ditu jorratu nahi soldatu-edukia duten bi gai hauek. Profesionalek Osakidetza saihestea eragiten duten lan-baldintza txarrak arazo larri bat dira.

Aldi berean, eta hauteskunde sindikalei dagokienez, Osakidetzak uko egin dio bilera egin aurretik sindikatuei hauteskunde-eremu proposamena emateari, berariaz eskatu arren. Dokumentua mahai sektorialean bertan aurkeztu nahi izateak beste asmo bat adierazten du, gai honen negoziazioaz haratago doana; are gehiago, kontuan hartzen badugu dokumentu hori dela aldez aurretik bidali ez den bakarra. Gai-zerrendako gainerako gaiei buruzko dokumentu guztiak erantsi dira, hau izan ezik.

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuentzat, une honetan ez dira ematen Mahai Sektorialeko bilerara joateko beharrezko baldintzak, Osakidetzak bizkarra ematen baitio benetako negoziazioari, akordioak lortzeko inolako borondaterik erakutsi gabe.



Erizaintza  
Sindikatua  
Euskadi

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**LAB**

 **SME**  
EUSKAL MERCANTIL SINDIKATUA

 **CCOO**  
osasun federakundea

 **UGT**  
Zerbitzu Publikoak

## **OSAKIDETZA SIGUE DANDO LA ESPALDA A LA NEGOCIACIÓN REAL CON LOS SINDICATOS DE LA MESA SECTORIAL**

*SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO y UGT deciden no acudir a la reunión convocada para hoy, ante la nula voluntad de Osakidetza de avanzar en la solución de los graves problemas que soporta la plantilla.*

Las multitudinarias manifestaciones celebradas este sábado en las tres capitales de la CAPV, secundadas por miles de personas, reflejaron claramente el clamor de la plantilla y la ciudadanía contra el desmantelamiento y el deterioro de nuestra sanidad pública. Sin embargo, Osakidetza ha optado por permanecer ciega y sorda, y hacer caso omiso a las peticiones planteadas. Así, ha convocado para hoy una nueva reunión de la Mesa Sectorial, cuyo orden del día no se aparta, ni un ápice, de los motivos que llevaron a todos los sindicatos integrantes de la Mesa Sectorial a levantarse de la misma allá por el mes de octubre.

Tanto la Dirección de Osakidetza como la propia Consejera, conocen sobradamente las razones que han llevado a la parte social a no asistir a las reuniones de la Mesa Sectorial, que no son otras que la inexistencia de una negociación real y la pretensión de teatralizar una negociación que no existe. En este mismo sentido, conocen también las condiciones que tienen que darse para que el foro vuelve a contar con la presencia de los sindicatos.

Sin embargo, y tal y como lleva haciendo muchos meses, Osakidetza sigue dando la espalda a la realidad y ha vuelto a convocar para hoy una nueva reunión cuyo contenido, nuevamente, no responde a las peticiones de los sindicatos.

La parte social ha planteado, de manera reiterada, dos cuestiones concretas:

- Por una parte, que se retire de la Mesa el último borrador del nuevo modelo de Desarrollo Profesional por entender que se trata de un recorte unilateral e inadmisible. Ello debe venir acompañado de la apertura de una nueva negociación honesta, real y con contenido.
- Que se ponga encima de la mesa una propuesta en relación con el abono del 4% que satisfaga las reivindicaciones de los trabajadores y trabajadoras en conflicto. Recordemos que la plantilla del Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos ha secundado ya más de 14 jornadas de huelga por este motivo.

Pues bien, el Orden del día de la reunión convocada no incluye ninguna de estas dos cuestiones. Estamos ante un planteamiento difícil de entender si tenemos en cuenta las declaraciones realizadas por la Consejera este mismo sábado, coincidiendo con las manifestaciones. Sagardui señaló que el problema de Osakidetza no es de dinero. Si embargo, se niega a abordar dos cuestiones que tienen un contenido salarial. Las malas condiciones laborales que hacen que las profesionales eviten Osakidetza sí son un problema real.

Paralelamente, y en relación con las elecciones sindicales, Osakidetza se niega a entregar a los sindicatos su propuesta de ámbitos electorales con carácter previo a la reunión; y ello a pesar de haberlo solicitado expresamente. La pretensión de entregar el documento de manera presencial en la propia Mesa Sectorial, manifiesta otra intencionalidad más allá de la propia negociación de este asunto, máxime si tenemos en cuenta, que este es el único documento que no se remite con carácter previo. Se adjuntan todos los documentos relativos al resto de puntos del orden del día, salvo este.

Los sindicatos SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO y UGT, entienden que, en estos momentos, no se dan las condiciones necesarias para acudir a la reunión de la Mesa Sectorial, ya que Osakidetza sigue dando la espalda a una negociación real y sin demostrar ninguna voluntad de alcanzar acuerdos.